

MERKATUAREN SEGMENTAZIOA

Merkatu-ikerketak burutu dugu gure zerbitzua erabiliko duten bezeroen sailkapena egiteko, eta haien beharrak hobeto ezagutzeko. Ikerketa egin ostean, ondorengo datuak ondorioztatu ditugu:

1. Gure zerbitzua Leioazarrei * bideratuta dago; salbuespen batzuk dauden arren:
 - Sei urte baino gutxiagoko umeak: Espainiako Gobernuak zehaztu zuen musukoak derrigorrezkoak izango zirela, segurtasun-tartea gordetzeko aukera dagoen arren. Hala ere, betebeharrak honetatik kanpo geratzen dira 6 urte baino gutxiagoko haurrak.
 - Arnasketa-zailtasunak dituzten pertsonak (bronkitisa, asma, neumonia etab. esaterako)
 - Justifikatutako osasun arazoak dituzten pertsonak, hala nola desgaitasun baten ondorioz, musukoa erabiltzea eragozten dienak.
2. Salbuespen hauek izan ezik, musukoen edukiontzia herritar guztiei bideratuta egongo litzateke. Are gehiago, musukoaren erabilera behar-beharrezkoa den pertsonetan jarriko dugu arreta gehienbat, horiek baitira kutsatzeko arriskurik handiena pairatzen dutenak. Musukoak ordaintzeko zailtasun-ekonomikoak dituzten herritarrengan ere arreta berezia jarriko dugu. Arrisku-talde horretan sartuko genituzke:
 - 65 urte baino gehiagoko biztanleak
 - Biriketako edo bihotzeko gaixotasunak pairatzen dituztenak (edo pairatu izan dituztenak); bihotzekoak, hipertentsioa, kardiopatia... besteak beste.
 - Arriskupeko lanetan aritzen diren pertsonak (jendaurrean jarduten duten langileak besteak beste). Hala nola irakasleak, osasun-zentroetako eta ospitaleetako langileak, autobus gidariak...
3. Musukoen bereizketa egin beharko litzateke:
 - Umeak: neurri txikiagoko musukoak bermatu beharko genizkieke
 - Arrisku taldeetako kideak (arnasketa-zailtasunak, ospitale edo osasun-zentroetako langileak...) : FPP motako musukoak eskaini beharko genizkieke, kutsatzeko mehatxu handiagoak baitituzte.
 - Gainontzeko bezeroek musuko kirurjikoak izango dituzte eskuragarri.

* Edukiontzia Leioan kokatuko liratekeenez, Leioaztarrek (edo Leioara datozen pertsonak) soilik erabili ahalko lituzkete. Hala ere, proiektuak arrakasta izanez gero, Bizkaia mailan edota Euskal Herri edo Espainia mailan aurrera eramatea interesgarria izango litzateke.

